

Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 24an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

URUMEA IKASTOLAREKIN 2026AN ZUZENEO DIRULAGUNTZA HITZARMENA ONARTZEA

Hitzarmen honen xedea da URUMEA IKASTOLAK Lehen Hezkuntzako ikasleak naturara hurbiltzeko eta euskara gaitasuna indartzeko curriculum proiektuko EUSKARA ETA EUSKARA ARRAKALARI AURRE EGINAZ egitasmoa gauzatu ahal izateko dirulaguntza ematea.

Urumea Ikastolak egoera sozioekonomiko zaugarria duten familietako ikasle tasa oso handia du. Horren ondorioz, arazo handiak ditu eskolaz kanpo egitekoak diren curriculumeko proiektuak gauzatzeko, izan ere, familia horiek ezin diote horrek dakarren gastuari aurre egin.

Aurkeztu duten egitasmoa horietako bat da, hain zuzen ere, ikasleak naturarekin harremanetan jartzea helburua duena; honako helburuak ditu:

1. Helburu zientifikoa: Ikasleek bertako animalia eta landareen ezagutza areagotzea, bertatik bertara naturarekin harremanetan; hau da, teoria eta praktika uztartuta.
2. Helburu emozionala: Ikerketek diotenari jarraiki, ikasleak naturarekin harremanetan jartzea dakartzan onura emozionalez gozatzea.
3. Hizkuntza helburua: Baseri eta landa eremuan, ikasleek, eskola-eremutik kanpo, ikasleen euskara modu natural eta atseginean entzun eta praktikatzeko aukera izatea; eta horrek dakarren hizkuntzarekiko atxikimendua areagotzea.

Ikastolak aurkeztu dituen zaugarritasun datuak aintzat hartua, erraz ulertzen da ikasle horiek direla naturarekin eta euskararekin harremanetan egoteko aukerarik txikiena dutenak, eta, aldi berean, premiarik handiena dutenak, hori horrela, proiektuari jarraipena bermatzeko 2025-26 ikasturterako hitzarmena sinatzea proposatu du Hezkuntza delegatuak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa: 10.000,- €

Kontuan hartu da herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2026ko otsailaren 05eko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela, Hernaniko Osoko bilkurak **AHO BATEZ erabaki du**

- 1.- Hitzarmena onar dezala eta alkateari sinatzeko ahalmena ematea.
- 2.- Dirulaguntza hitzarmenean jasota dagoen ordainketa moduan eta epeetan egingo da: Dirulaguntza onartutakoan %75eko ordainketa eta justifikazioa aurkeztutakoan %25a.
- 3.- 2026ko udal aurrekontuaren aldaketa tramitatzea, kreditu transferentzia bidez.
Handituko den partida (berria): 1 1811.481.02.323.00 2026 (7884) DIRULAG.HITZARMENA.URUMEA IKASTETXEA.
Gutxituko den partida: 1 1811.227.07.323.00 2026 (4517)
- 4.- Dirulaguntzen plan estrategikoa eta aurrekontuaren Diru-laguntza eranskina aldatzea.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria
Hernanin 2026ko otsailaren 24ean

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna,
QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikokoaren bidez egiazta dezakezu.

